



## INFORMAZIOA

### Mutiloabeitiko industrialdean ENERGIA KOMUNITATEA sortzeko parte-hartze prozesua

#### 🏰 ZER?

Energia-komunitatea. Aranguren ibarreko industrialde handienean (Mutiloabeitiko industrialdea) sortuko da, Ibarreko Udalak eta industriek sustatuko dituzten energia sortzeko proiektuen inguruan.

#### 🏰 ZERTARAKO?

Aranguren Ibarreko industrialdean energia berriztagarria sortzeko, kolektiboki autokontsumitu eta haren kudeaketaz arduratuko den erakundea sortzeko.

#### 🏰 NOLA?

Udalak sustatutako parte-hartze prozesu baten bidez. Prozesu horretan interesa duten enpresak izango dira partaide eta komunitate hau abiaraziko duen Talde Eragilea osatuko dute.

#### 🏰 ZER DA TALDE ERAGILEA?

Energia Komunitatea martxan jartzeaz arduratuko den industrialari-talde bat. Horretarako, pertsona horiek parte-hartze prozesuan zehar prestatu, gaitu eta kohesionatu eginen dira.

#### 🏰 ZERTAN DATZA PROZESU PARTE-HARTZAILEA?

Saio batzuk egingo dira eta horietan, modu dinamikoan eta taldean, Energia Komunitatea abian jartzeko beharrezkoak diren hiru elementuak landuko dira:

- Energia berriztagarriak eta energia-proiektuak
- Energia Komunitateei buruzko araudia
- Gobernantza eta kudeaketa.

### INFORMAZIO BILERA ETA PARTAIDETZA PUBLIKOKO SORKUNTZA PROZESUAREN AURKEZPENA

Aranguren Ibarreko Udaleko Erabilera Anitzeko Gela,  
Mutiloan.

Martxoak 30, osteguna, 19:00etan.  
(Gehienez ordu 1)

Gai ordena:

- 1) Sarrera Manuel Romero J.; Aranguren Ibarreko alkatea
- 2) Aurrekariak Patxi Mateo, AEVAko lehendakaria
- 3) Komunitate energetikoen eredua. Oihana Lorea And., Artelan
- 4) Diagnostiko teknikoaren laburpena: Montse Guillén And.
- 5) Parte-hartze prozesuaren eta Talde Eragilearen osaketaren ibilbide orria
- 6) Eskakerak eta galderak